

## 78. EUSKAL SOZIOMETROA (2022ko urria) Prensa oharra

### SARRERA

78. Euskal Soziometroa 2022ko hirugarrena da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta euren jarrera eta balio politikoak.

Landa lana 2022ko urriaren 3tik 7ra bitartean egin zen.

### EGOERAREN BALORAZIOA

#### Egoeraren balorazio positiboa, ekonomiarekin zerikusia duten kezkekin

Euskadiko egoera politikoaren balorazio positiboa egiten dute biztanleek; % 66k uste dute ona edo oso ona dela. Halaber, egoera ekonomikoari buruz egiten den balorazioa positiboa da, eta % 68k uste dute Euskadiren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela. Aldiz, gehienek uste dute Espainiako egoera politikoa eta ekonomikoa txarrak edo oso txarrak direla (% 70ek eta % 73k, hurrenez hurren).

**Euskadiko arazo nagusiei** dagokienez, gizartearen lehenengo kezka iturria berriz ere **lan-merkatuarekin** lotutako arazoetan kokatzen da. Biztanleriaren % 52k aipatzen du hiru arazo nagusietako bat bezala. Dena den, azken soziometroetan arazo honek beherazko joera hartu du, eta 13 puntu txikitu da portzentajea otsailetik. Aldiz, bigarren lekuan jarraitzen duten **arazo ekonomikoek** gorazko joera dute, eta hauekiko kezka otsaileko %15etik egungo %26ra handitu da.

Bestalde, hirugarren lekuan agertzen diren **Osakidetza eta osasunarekin** lotutako arazoak (%19), eta laugarren lekuan kokatu diren, **egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoarekin** (% 15) lotutakoak, mantendu egin dira aurreko soziometroarekin alderatuta. Ondoren, gehien aipatzen diren arazoak dira: etxebizitza eta etxegabetzeak (% 13) eta, delinkuentzia eta herritarren segurtasunik eza (% 10).

Oro har, Euskadiko biztanleria optimista da etorkizunarekiko (%68 asko edo nahikoa), 2016ean jasotako portzentajearen oso antzekoa.

### ZERBITZU PUBLIKOEN BALORAZIOA

#### Zerbitzu publikoen balorazio positiboa

Lau herritarretik hiruk diote (% 75) Euskadin zerbitzu publikoak oso onak edo onak direla. Euskadi, Eurobarometroko datuekin alderatuta, lehen tokietan mantentzen da, Luxenburgorekin (% 94), Herbeherekin (% 85) eta Maltarekin (% 79) batera, eta EBeko batezbestekotik gora (% 52).

Eusko Jaurlaritzaren jarduera hobekien baloratu den arloak honako hauek dira: turismoa (% 73k uste dute jarduera ona dela), kultura (% 64), bakea eta bizikidetza (% 57), euskara (% 52) eta gizonen eta emakumeen berdintasuna (% 50). Bestalde, balorazio txarrena jaso duten arloak etxebizitza (% 21), enplegua (% 26) eta justizia (% 27) dira.

### JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

#### Buruzagi politikoaren balorazioa zertxobait igo da

Begikotasun politikoei dagokienez, EAJ da herritarren artean begikotasun handiena sortzen duen alderdia, 5,3 punturekin 0tik 10erako eskalan. Ondoren, PSE-EE (4,6), EHBildu (4,2), Elkarrekin Podemos (3,9), PP (1,8), eta, azkenik, Vox (0,7) daude. Ekaineko azken soziometroarekin alderatuta nahiko balorazio paretsuak.

Buruzagi politikoei dagokienez, baloraziorik altuena Iñigo Urkullu Lehendakariari dagokio, 5,8 puntu lortu baititu 0tik 10erako eskalan. Bigarrenik, Maddalen Iriarte ere ontzat eman dute herritarrek, 5,4 punturekin. Ondoren datoz Miren Gorrotxategi (4,9), Eneko Andueza (4,5), Amaia Martinez (2,7), eta, azkenik, Carlos Iturgaiz (2,2). Oro har, Buruzagi politikoaren balorazioak pixka bat igo dira ekaineko datuekin alderatuta.

Hiriburuetako alkateei dagokienez, balorazioak honakoak dira: Gorka Urtaran (4,5), Eneko Goia (5,2) eta Juan María Aburto (5,2). Hiru lurraldeetako Diputatu Nagusiak ontzat jo dituzte herritarrek: Unai Rementeria (5,4), Ramiro González (5,3) eta Markel Olano (5,2).

Herritarren % 45 "soilik euskal herritar" edo "euskal herritar, espainiar baino gehiago" sentitzen dira, % 40 "euskal herritar bezain espainiar", eta soilik % 8 "espainiar euskal herritar baino gehiago" edo "bakarrik espainiar".

Bestalde, Euskadiko biztanleen % 24 independentziaren alde daude, % 31 independentziaren alde edo kontra leudeke egoeraren arabera, eta % 40 aurka daude. Ekaineko datuekin alderatuta, pixka bat handitu da independentziaren aldeko jarrera dutenen portzentajea, eta txikitu egoeraren arabera alde edo kontra leudekeena; independentziaren kontrako jarrera dutenen portzentajea, berriz, mantendu egin da.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.333 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm\%$  1,7koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2022ko urriaren 3tik 7ra egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 21a